

EUSKO JAURLARITZAK 36.000 MILIOI PEZETA BAINO GEHIAGO JARRIKO DITU HIRU URTETAN EGITASMOA SUSTATZEKO

Jaurlaritzak eta aldundiek 52.000 milioi bideratuko dituzte Enplegu Planera

■ Eusko Jaurlaritzak, EAEko hiru foru aldundiek eta Eudelek atzo sinatu zuten EAEko Erakunde Arteko 2000-2003 Enplegu Plana

■ Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena 12.000 milioi pezetakoa izango da, eta Arabak eta Gipuzkoak 2.000 jarriko dituzte

■ Datozen lau urteotan 75.000 lanpostu sortzea eta populazio aktiboa milioi bat biztanlekoa izatea dira xede nagusiak

Ivan Santamaria / Gasteiz

LAU URTEZ Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) enplegua kudeatuko duen erakunde arteko egitasmoa aurkeztu eta sinatu zen atzo. Sabin Intxaurre EAEko Lan sailburuak, Carlos Samaniego Arabako Foru eta Toki Administrazioa ahalduak, Sabin Arana Bizkaiko Enplegu eta Prestakuntzarako ahalduak, Jose Ramon Beloki Gipuzkoako Ekonomia eta Turismo ahalduak eta Karmelo Sainz de la Maza Eudel elkarte buruak ordezkatu zuten atzo erakunde sinatzaile bakoitza.

Orotara, 51.854 milioi pezeta bideratuko dituzte Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru foru aldundiek enplegua sustatzeko neurriak finantzatzeko, Erakunde Arteko 2000-2003 Planaren baitan. Eusko Jaurlaritzak 36.305 milioi jarriko ditu guztira; 23.403 aurrekontu orokorretatik aterako dira eta gainerako ia 13.000 milioiak Euskadi 2003 Egitasmoaren bitartez lortuko ditu.

Foru aldundiei dagokienez, Bizkaikoak 11.229 milioi jarriko ditu, Gipuzkoakoak 2.292 eta Arabakoak 2.026. EAEko udalek Eudelen bitartez parte hartu ahal izan dute egitasmoaren taxuketan, eta eskualde bakoitzean



JOSEBA OLALDE

Jose Ramon Beloki, Carlos Samaniego, Sabin Intxaurre, Karmelo Sainz de la Maza eta Sabin Arana, elkarri bostekoa ematen, atzo.

abian jarriko diren neurri eta programa zehatzak ere jasotzen ditu plan orokorrak.

Langabezia gutxitzea da helburu nagusia

Langabeziaren arazoari erakunde politiko guztien artean erantzun bateratua emateko beharrea oinarritzen da Enplegu Plana. Bakoitzaren

enplegu politika besteekin koordinatzeko tresna bezala hartzen da egitasmoa. Ildo horretan, Europako Batasunak enplegu politikak prestatzeko eginiko azken gomendioak jarraitzen dituen lehen eskualde plana da.

Bi helburu zehatz jarri zituzten sinatzaileek: langabezia jaistea eta jarduera tasa igotzea. 75.000 lanpos-

tu sortzea da xedea, eta horretarako langabezia %9,84ra jaitsarazi beharko da: %9ra Araban, %8,2ra Gipuzkoan eta %11,5ra Bizkaian. Jarduerari dagokionez, EAEn milioi bat pertsona aktibo egotea espero dute planaren sustatzaileek, eta jarduera tasa %56,2an kokatzea.

Sabin Intxaurre Lan

sailburuak aurkezpenean azaldu zuenez, jarritako helburuak betetzeko benetako aukerak daude. Era berean, egitasmoa INEMek estatu osoan duen planarekin «osagarria» dela zehaztu zuen, eta ez kontrajarria. Haatik, lan arloan falta diren eskuduntzak lortuz gero egitasmoa aldatzeko atea zabalik utzi zuen Intxaurreak.

Kolektiboen kontratazioa, aurrekontuen izarra

■ EGITASMOAK jada prest dauden neurri eta programa zehatzak jasotzen ditu, Jaurlaritzak zein foru aldundi edo udalek bultzatuta.

Lana lortzeko arazoak dituzten kolektiboentzako laguntzak biltzen dituen arloa bideratu dute diru gehien. Erakunde guztietatik bul-

tzatuko diren neurriak gehituz, 18.000 milioi inguru erabiliko dira horretarako. Emakumeak, gazteak, langabezian luze daramatenak, 45 urtez gorakoak, elbarrituak, gizarte baztertuak izateko arriskua dutenak eta etorkinak lagundu nahi ditu bereziki planak.

Beren kabuz enpresak sortzeko asmoa duten pertsonen babesa eskaintzeko baliabideak ere ugarriak izango dira. Txosteneko datuen arabera, 11.000 milioi inguru bideratuko dira orotara pertsona ekintzaileen informazio eta aholkularitza erantzat. Gainera, beste 1.200

milioirekin sustatuko da autoenplegua.

Hezkuntza munduarekin ere lotura zuzena izan nahi dute erakundeek Enplegu Planarekin. Hori dela eta, lanbide heziketako lanearako prestakuntzan inbertsioa ia 10.000 milioikoa izango da egitasmoak irauten duen bitartean.



EUSKO JAURLARITZA

GIPUZKOAKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK
(Donostia/San Sebastian, Eibar, Irun)

1.- Ikasle ofizialentzako ekaineko azterketak datorren ostegunean ekainaren 1ean, hasiko dira.

2.- Ikasle libreentzako ekaineko azterketak datorren astearten, maiatzaren 30ean, hasiko dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero Eskolako iragarkitauletara jo eta, bestela, telefono hauetara deitu:

-Irun: 943.623381 (Bulego orduetan)

-Eibar: 943.200618 (24 orduz erantzungailu automatikoa)

-Donostia: 943.286311 (24 orduz erantzungailu automatikoa)

-Donostia: WEB orria: eoidonheo.org